

IRUN-GO EUSKAL-FESTAK

EUSKAL-ITZ-JOSTALDIEN EGINTZA

Donostiyako Euskal-itz-jostaldien Batzarrea dator gaur Iruna, kontu ematera, bear dan errespetoarekiñ, leku au onratzen duten entzule guztiai, zer nolakoa dan, aurten, izkribatzalle eta musikalarien indar-neurtzeetan, batzar epalle bereziak erabaki duten sari emaldia.

Arreta aundiz esamiñatu ondoren aurkeztu diran moldaera guziak, zeñen agiria egiten dan urteoroko Oroimengarriyan, irabazi dituzte SARIYAK, izkribatzalleen artean: On Blas Pradere; On Ramón Inzagaray; On Emeterio Arrese; eta On Enrike Elizecheak, *Irún eta bere seme ospatsubak lengo denboretan; Ama Birjiña Guadalupekoari; ¡Ama! eta Baserriko bizimodua izendatzen diranakgatik.*—Irabazi dituzte ALDEERAK, On Juan P. Urroz; Ona Rosario Artola; On Enrike Elizecheak bi; On Ramón Illarramendik bi; eta On José Gamboak, *Irun Uranzun-go berri kondairarraren laburketa; Zeruetako Erregiña; Guerra ta Pakia; Euskal-frantzesei agurra; Artzai Pilipe; Bateko urria; eta Chardiñas izentzat dituztenagatik.*—Irabazi dituzte AIPAMEN ONRAGARRIYAK, On Bonifacio Echeagaray; On Jerónimo Elizegik bi; On Biktoriano Iraola; eta On Juan Ignazio Urangak, *Irún eta bere seme argidotarrak : Nere amets gozoa; Santo Tomás eguneko festa Donostiyan; Santo Tomás eguneko feririk ederrena; eta Barekurkulluak izendatzen diranakgatik.*

Musikalarien artean irabazi dituzte SARIYAK. On Balentín Larrea; On Estanislao Gurrochategi; eta On Ildfonso Lizarriturrik, *Euskal-Mendiyak; Aitor; eta Marichu izentzat dituzten kanta moldaera, zortziko eta ariñ-ariñagatik.*

Irún-en, 1903-ko Agorraren 28-an.

Batzarrearen izenean:

Dianagusia,
ALFREDO DE LAFFITTE.

Goarpelaria,
ANTONIO ARZÁC.